

Proiektuaren izena: **Lagunup**

Deskribapena:

Pertsonok elkarren artean erlazionatzeko beharra dugu, lagunekin denbora pasa egon, gure bizi-esperientziak eta kezka partekatu... baina, eta lagunik ez badugu, zer? Gure izaeraren arabera lagun gehiago edo gutxiago izango ditugu, gure erlazio erraztasunak baldintzatzen gaitu eta. Baina bada profil zehatz bat zailtasun handiak izan ohi dituenak lagunak egiteko: lotsatia izateagatik, gizarteak pertsona arraro gisa izendatu duelako edo besterik gabe normaltasunetik kanpo sailkatzen dugulako. Gure arreta laguntasunean arazoak dituzten pertsonengan jartzea erabaki dugu, askotan bazter batean utzi ohi den gai bat delako.

Arazo honi irtenbide bat emateko lagunak egiteko aplikazio bat sortzea erabaki dugu. Aplikazio hau erabil erraza izango da, non edonor erabiltzaile izan daiteken. Parte izateko, izen abizenak, bizilekua ikastetxea/lantegia, zaletasunak eta bilatzen duen lagun mota eman beharko ditu, eta ondoren inguruko aplikaziodun pertsonekin kontaktuan jarriko genituzke, erlazio on bat sortzeko helburuarekin. reaplikazioa hobetzeko proposamenak uzteko atal bat izango du.